# EUSKALTZAINDIA
# 100 URTE EUSKARA EHUNTZEN

**ERAKUSKETA**
Gipuzkoako Campuseko Biblioteka
2019ko URRIA - 2020ko OTSAILA

## :: EUSKALTZAINDIA, 100 URTE EUSKARA EHUNTZEN
### :: ERAKUSKETA GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKAN

*Joan den urrian, Euskaltzaindiak UPV/EHUko Urrezko Domina jaso zuen. Omenaldi honekin bat eginez, Gipuzkoako Campuseko Bibliotekan erakundearen ehun urteko ibilbidearen fruituak nabermendu nahi izan ditugu. Horren helburuz, Euskaltzaindiaren babespean egindako lanen hautaketa txiki bat aurkezten dugu, euskararen garapena mende oso batean zehar erakusten dutenak.*

## :: EUSKALTZAINDIA, 100 URTE EUSKARA EHUNTZEN
### :: EXPOSICIÓN EN LA BIBLIOTECA DEL CAMPUS DE GIPUZKOA

*El pasado octubre Euskaltzaindia recibió la Medalla de Oro de la UPV/EHU. Coincidiendo con este homenaje, en la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa hemos querido destacar los frutos de una trayectoria de cien años. Para ello presentamos una selección de trabajos producidos bajo el auspicio de Euskaltzaindia, que muestran el desarrollo del euskera a través de todo un siglo.*



## :: EUSKALTZAINDIA

Real Academia de la Lengua Vasca. (2010). ***Euskaltzaindia : Gida 2010 : Aurkitegia eta organigrama, arautegia eta barne erregelak*** = *Real academia de la lengua vasca : Guía 2010 : Directorio y organigrama, estatutos y reglamento interior = Académie de la langue basque : Guide 2010 : Répertoire et organigrame, statuts et règlement intérieur = Royal academy of the basque language : Guide book 2010 : Directory and organizational chart, constitution and rule book.* Bilbao: Real Academia de la Lengua Vasca = Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/932604290

Torrealday, J. M., Murua Uria, I. (2009). ***Euskaltzaindia ekin eta jarrai.*** [Bilbao]: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/733808338

Zabala, J. L., & Urrutia, A. (2019). ***Berri gogoa : Euskaltzaindiaren lehen ehun urteak.*** Bilbo: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1122807364







## :: 1919-1936

### :: EUSKALTZAINDIAREN SORRERA - GERRA ZIBILA

Real Academia de la Lengua Vasca., & Euskaltzaindia. (1919). ***Euskera : Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*** = *Trabajos y actas de la real academia de la lengua vasca = Travaux et actes de l'académie de la langue basque.* Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1027039494

Azkue, R. M. d. (1969a). ***Morfología vasca. T. I : (Gramática básica dialectal del euskera).*** Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1057734180

Azkue, R. M. d. (1969b). ***Morfología vasca. T. II : (Gramática básica dialectal del euskera).*** Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1057738364

Azkue, R. M. d. (1969c). ***Morfología vasca. T. III : (Gramática básica dialectal del euskera).*** Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055086112

Campión, A., & Broussain, P. (1920). ***Informe a la academia de la lengua vasca sobre unificación del euskera.*** Bilbao: [s.n.].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/932357082

Echaide, A. M. (1984). ***Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario = Triple questionnaire.*** Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055179536

## :: 1936-1968

## :: GERRA ZIBILA - ARANTZAZUKO BILTZARRA (EUSKARA BATUA)

Aresti, G. (1986). ***Lehen poesiak.*** Bilbo: Bilboko Udala.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434310419

Alvarez Loidi, E. (2017). ***Euskararen estandarizazio prozesua jakin aldizkarian (1956-1968).*** (Trabajo fin de grado). Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitaea
https://addi.ehu.es/handle/10810/21276

Txillardegi, (1959). **Batasunaren bidea. Euskalzaleen Biltzarra** (Bilbon, 1958, Abenduaren 13 eta 14-an). *Euskera IV.*, p. 150-170.







## :: 1968-2005

## :: NORMALIZAZIOA

Alberdi, A., Mujika, A., Sagarna, A., Urkia, M., González de Viñaspre, R., & Oñederra, M. L. (2018). ***Euskara batuaren eskuliburua (EBE) : A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak.*** Bilbo: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1076344592

Aresti, Gabriel. (1979). ***Este pueblo de piedra.*** San Sebastián: L. Haranburu.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/432239243

Artze Agirre, J. A. (2007). ***Isturitzetik tolosan barru : Neurthitzak.*** Pamplona: Pamiela.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/932586418

Atxaga, Bernardo. (1983). ***Etiopia* (2gn argit.).** [Donostia]: Erein.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434365081

Azkue, Resurrección María de. (1984). ***Diccionario vasco-español-francés.*** Bilbo: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434637949

***Euskararen liburu zuria. [1]*** (1978). Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055170140

Gorrotxategi Nieto, M., Salaberri Zaratiegi, P. (2001). ***Euskal izendegia : Ponte izendegia*** = *Diccionario de nombres de pila = Dictionnaire des prénoms.* Vitoria-Gasteiz; [Bilbao]: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco; Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/733581373

**Hiztegi batua.** (2000). *Euskera*, 45, Liburukia 2.

Jimeno Jurío, J. M. (1986). ***Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur.*** Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/850598453

Lertxundi, Anjel. (1984). ***Goiko kale*** (2. argit. ed.). Donostia: Erein.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/850881379







Michelena, L. (1978) **Arantzazutik Bergarara.** *Euskera* XXIV (2. Aldia) p. [467]-477.

Michelena, L. (1987). ***Diccionario general vasco = orotariko euskal hiztegia***. Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055130071

Real Academia de la Lengua Vasca. (1979). ***Euskal Herriko udalen izendegia*** = *Nomenclator de los municipios del País Vasco = Nomenclature des communes du Pays Basque*. [Bilbo]: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/431339200

Real Academia de la Lengua Vasca. (1985). ***Euskal gramatika. V. I : Lehen urratsak*** (2. argit. ed.). Bilbao: Euskaltzaindia [etc.].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055111654

Saizarbitoria Zabaleta, R. (1982). ***Egunero hasten delako.*** [S.l.]: [s.n.].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/851193823

Saizarbitoria Zabaleta, R. (1986). ***100 metro*** (7. arg. ed.). Donostia: Erein.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055146124

Sarasola, Ibon. (1987). ***Joan eta Ane zigarro bat erretzen.*** Donostia: Erein.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434879243

Satrustegui Zubeldia, J. M. (1972). ***Nomenclator onomástico vasco = Euskal izendegia.*** Bilbao: Academia de Lengua Vasca
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/850921228

Txillardegi (1978). **68.-ko txostenari buruz zenbait ohar.** *Euskera,* XXIV (2. Aldia) p. [607]-611.

Txillardegi (1981). ***Elsa scheelen***. Donostia: Elkar.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/433257237

SIADECO, Ugalde, M. (1979). ***Hizkuntz borroka euskal herrian***. San Sebastián: Ediciones Vascas.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/850909125

Villasante Cortabitarte, Luis (O. F. M. ). **Euskaltzaindia eta euskararen batasuna.** *Euskera*, XXIV (2. Aldia) p. [441]-461.

Villasante Cortabitarte, Luis (O. F. M. ) (1980). ***La H en la ortografía vasca : Razones y motivos, reglas, catálogo de voces con comentario.*** Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1010911577

Villasante Cortabitarte, Luis (O. F. M. ). (1980). ***Hacia la lengua literaria común*** ([3a ed.]. ed.). Oñate (Guipuzcoa): Aránzazu.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/632708870

Villasante Cortabitarte, Luis (O. F. M. ). (1988). ***Euskararen auziaz.*** [Oñate]: [Aránzazu].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434555517

**Zortzi urte arteko ikastola hiztegia**. (1975). *Euskera*, XX, p. 7-154.







## :: 2005

## :: ARO BERRIA

Dechepare, B., Kintana, X., & Altuna, P. (2014). ***Linguae vasconum primitiae.*** [Bilbo]: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/974412678

Otaegi, L., & Real Academia de la Lengua Vasca. (2008). ***Literatura terminoen hiztegia.*** Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/733718308

Real Academia de la Lengua Vasca. (2012). ***Euskaltzaindiaren hiztegia : Adierak eta adibideak.*** Bilbo [etc.]: Euskaltzaindia [etc.].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/828393032

Real Academia de la Lengua Vasca. (2008). ***Hiztegi batua.*** Bilbao; Donostia: Euskaltzaindia; Elkar.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055296679







## :: EUSKALTZAINDIA: GIZARTE ETA EUSKAL KULTURA

Andres Urrutia. (2011). *Aizu*, n. 354, 2011.ko otsaila.

Arana, A. (2003). ***Lagun mina.*** Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/932513258

Azkarate Villar, Miren. (1992). **Anderearen euskaltzindian sartzea.** *Euskera*, 37 (2.aldia) p. [1119-1139].

García Isasti, Prudencio. (1994). **Udako Euskal Unibertsitatea-Universidad Vasca de Verano (UEU).** *Revista de estudios políticos* (nueva época), n. 84 p. 305-316

***Narrazioak eta olerkiak.*** (2010). Bilbo: Euskaltzaindia [etc.].
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055442973

Real Academia de la Lengua Vasca. (2008). ***Euskararen herri hizkeren atlasa.*** Bilbao: Euskaltzaindia.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1055448365

Suárez, C., Urbeltz, L. (2010). ***Ebelina mandarina.*** Donostia: Erein.
https://ehu.on.worldcat.org/oclc/868797097

Zabaleta Kortaberria, Josu (2019) ***Itxulpengintza eta euskeraren batasuna eta normalizazioa : mende erdiko historiaren berrikusketa eta gogoeta batzuk.*** *Senez: itzulpen aldizkaria*, 50zk. p. 85-108.



## *Joan Mari Torrealdai: "Garrantzitsua da gure iragana egiaren eta zientziaren bidetik aztertzea"*

***Euskaltzaidia, 2019-11-27***

*https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/5954-joan-mari-torrealdai-garrantzitsua-da-gure-iragana-egiaren-eta-zientziaren-bidetik-aztertzea*

- ***Euskaltzaindiak urtean birritan plazaratzen duen Euskera agerkariaren 63, 2, 2 zenbakia aurkeztu da gaur*** *Akademiaren Donostiako ordezkaritzan. Batez ere,* ***zentsura frankistaren eta literaturaren arteko loturak aztertzen dira bertan****, eta honako aditu eta ikertzaileek parte hartu dute argitalpenean: Andres Urrutia, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Beñat Sarasola, Mikel Ayerbe, Amaia Elizalde, Ana Gandara, Miren Ibarluzea, Idoia Gereñu, Ismael Manterola eta Ane Villagran.*
- ***Euskera 63, 2, 2 zenbakia Euskaltzaindiaren webgunean eskura daiteke,*** *bai liburu formatuan, baita euskarri digitalean ere, HEMEN*

*Euskaltzaindiaren agerkari ofizialaren zenbaki berria aurkeztu da gaur, Donostian. Prentsaurrekoan izan dira Joan Mari Torrealdai eta Miriam Urkia euskaltzain osoak eta Mari Jose Olaziregi eta Lourdes Otaegi UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak. Euskera-ren zenbaki berria monografikoa da, eta bere sorburua Euskal Herriko Unibertsitateko Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldeak 2018ko ekainaren 21ean eta 22an Donostiako Miramar jauregian antolatu zuen Literatura eta Zentsura. Memoria eztabaidatuak nazioarteko biltzarrean dago. "Mintegi horretan, zentsurari buruzko hausnarketa teoriko nahiz historikoa sustatu nahi izan genuen, batetik, eta eremu iberiarreko literaturetan izandako eragina aztertu, bestetik", argitu du gaur Mari Jose Olaziregik.*

*Baina iazko biltzarrak bazuen bestelako helburu garrantzitsu bat, hain zuzen ere, "Joan Mari Torrealdaik euskal ikasketetan zentsuraz egindako ikerketa eskerga aitortu eta omentzea", Olaziregik aditzera eman duen lez. Eta, ondoren, euskaltzain osoaren urteetako esfortzua nabarmendu du irakasleak: "Izugarria da Joan Marik zentsura frankistari buruz eginiko ekarpena. Oraindik orain ez da batere erraza artxiboetan arakatzea, mila oztopo jartzen dizkigutelako, nekagarria eta garestia delako, baina bera ibili zen garaietan izugarri zaila zen kontu hori. Eta ez du bakarrik zentsurari buruz ikertu, zentsoreei eta haien kriterio arbitrarioei buruz ere ikertu eta idatzi baitu. Gure lantaldeak bere lanaren jarraipena egin nahi du, baina ez da erraza izango maila horretara heltzea".*

*Zenbaki monografiko honen bigarren atal nagusiak zentsuraren arloan burututako ikerketak jasotzen ditu. "Molde askotariko lanak biltzen dira bertan; batzuek zentsuraren teorizazio garaikidetik abiatu eta proposamen berritzaileak egiten dituzte euskal eremuko zentsura ikertzeko. Gehientsuenek, berriz, obra, literatur genero edo adierazpide artistiko zehatz baten gaineko hausnarketa bideratzea dute helburu. "Kontu bitxiak eta berritzaileak ere badira. Esaterako, Ismael Manterolak aztertu du Frankismoaren zentsura arte plastikoetan; Lourdes Otaegik Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean artikulu argigarria idatzi du; Zentsura eta errealitate sinbolikoa jorratu du Ana Gandarak; Idoia Gereñuk XX. mendean antzerkiak pairatu zuen 'mututzea'..."*

*Azkenik, Euskaltzaindiarentzat ere hitz gozoak izan ditu UPV/EHUko irakasleak: "Esker oneko gaude Euskaltzaindiarekin, biltzar horretan eginikoa txukun eta zorrotz jaso dutelako Euskeran, eta, nola ez, zenbaki berezi hau zabaltzeko egiten ari diren ahaleginagatik".*

*Argitalpen hau ez da izango biltzarrak emandako emaitza bakarra, Olaziregik berak aurreratu duenez: "laster, Alemaniako Peter Lang argitaletxearen eskutik eremu iberiarreko zentsuraz jarduten duen argitalpena kaleratuko da, gaztelaniaz".*

***Negazionismoaren garaia***

*Lourdes Otaegi UPV/EHUko irakasleak Joan Mari Torrealdairen ibilbidea aletu du, labur, eta azpimarratu du bizkaitarrak egindako "lan erraldoi eta bakartia". "Bere eskutik ezagutu ditugu mila kontu -gaineratu du Otaegik-. Esaterako, jakin izan dugu frankismoaren zentsurak euskal pentsamenduaren kontra egin zuela, batez ere, modu sistematikoan egin ere. Hau da, ez zuen nahi euskara kultua, inondik inora".*

*Torrealdaik lotsaz hartu du bigarren omenaldi hau, hots, Euskeraren argitalpenarena, baina poztu da ikusita badagoela bere lanari jarraipena emango dion lantalde unibertsitario bat, "nik baino askozaz hobeto eta zorrotzago aztertuko duena iragana, iragana ezagutzea oso inportantea baita". "Zuek, ikertzaile berriok, iragana aztertuz etorkizuna eraikitzen ari zarete", adierazi du Torrealdaik, eta ohartarazi du zentsura ez dela aldendu: "90eko hamarkadan errebisionismoa izan zen, hau da, auzitan jartzen hasi ziren jada ukiezinak ziruditen kontuak; baina gaur egun negazionismoa bizi dugu, hau da, jada ez da frankismoa diktadura bezala aurkezten. Puntu horretara heldu gara. Horregatik da hain garrantzitsua gure iragana egiaren eta zientziaren bidetik aztertzea".*

***EUSKERA agerkaria***

*Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira.*




## :: ETA GAINERA...

Castañeda Zumeta, Aitor (2019).
***Olariagaren trantsizioa : Egin egunkariaren eta Zakilixuten jaiotzak.***
Leioa: UPV/EHU

*Hogeita hamar urte pasatxo dira euskal prentsako pertsonaia umoristiko famatuena jaio zenetik: Antton Olariagaren Zakilixut delakoa. Trantsizio-garaitik hona dabil tokiko prentsa kitzikatzen, garai batetik non sexu-pasarteak –eta oro har, moral-kode meharren barruan zegoen oro– estu-estuan konta zitezkeen. Gosea baino argiagorik ez badago, Olariaga bai izan dela buruargi: egun, hain ikertua den Konstituzioaren gestazio-garaian hasi zen Olariaga Egin egunkarian marrazkilari. Egunkari bat, hori bai, polemikatik libratuko ez zena, bere orriak Legeak (edo) ebakiko zizkiola. Baina Zakilixuti ez zion inork ezer moztu, eta egun libertateen 40. urtemuga ospatzen bada, euskal irakurleok Zakilixutena zergatik ez? Trantsizioaren espiritua berreskuratzeko eskatzen badigute, zer bada ez orduko umorea ere bai? Irriak ez al du espiritua gaztetzen?*

*Berreskurapena da beraz liburu honen betebeharra: begirada historiko-analitiko batetik, gure historiaren atal inportanteenetako bat aztertzea, 1977a, Zakilixuten begirada kritikotik eta orduan oso irakurria (eta estimatua) izan zen berripaper batean. Ikuspegia, askeagoa: ahoan bilorik gabe, naturak ekarri gintuen moduan, eta beti etorkizunak zer dakarkigun buruan. Zakilixuten kezkak ez zaizkigu beraz arrotz, gureak ere izan direlako. Eta irakurle gazteak, agian, bizi izan ez duen garai bati buruzko datu gehiago ikas ditzan, Zakilixutek hala irakatsita.*

## :: 2019/12/03 - EUSKARAREN EGUNA GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKAN

*Aurtengo **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospakizunarekin bat eginez, Gipuzkoako Campuseko Bibliotekan ikusgai dauden bi erakusketen berri eman nahi ditu. Alde batetik, **"100 urte Euskara Ehuntzen"**, Euskaltzaindiaren historiaren ingurukoa, eta bestalde, **"Txillardegi Irakurtzen"**, euskalzale gailenari buruzkoa. Bi ekitaldiak, aurten UPV/EHUk egindako omenaldien ondorioz sortu dira. Euskaltzaindiari UPV/EHUko Urrezko Domina eman zitzaion Urrian eta Txillardegiren omenez Txillardegi Aretoa inauguratu zen azaroan, Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaría Zentroan. Bi erakusketak bibliotekako atarian ikus daitezke.*




